



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

2017/02/14

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek Elorrion trafikoa "nasaitzeko neurriak" ezarteko aukerea aztertzeko eskatu deusie Aldundiari**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko batzordeak aho batez onartu dau gaur Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Podemos Bizkaia taldeek eta Talde Popularrak sinatu daben zuzenketa-eske transakzionala, Foru Aldundiak, Elorrion, Urkizuaranetik dagon sarbidearen parean, BI-3331 errepidean "trafikoa nasaitzeko neurriak" aztertu eta, beharrezkoa bada, ezarri daizan, Udalagaz alkarlanean.

Idea, Podemos Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen batetik sortu da. Talde horrek, hasieran, "abiadurea mugatzeko gailuak" jartea eskatu dau, abiadurea orduko 60 kilometrotan mugatuta dagon leku batean larregizko abiadureak eragindako bideko segurtasun arazoa konpondu ahal izateko. PP taldeak zuzenketa-eske bat aurkeztu dau jatorrizko ekimenaren aurrean, sartu daitezkezan hobekuntzen artean ez daiten badenak jarterik egon, horreek sortzen dituen "lepoko arazoak" dirala eta.

Azkenean, onetsi dan testua, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek erregistratu daben beste zuzenketa-eske batean oinarritu da. Zuzenketa-eske horretan eskaria egiten jako Aldundiari, arazo hori Udalagaz lankidetzan "aztertu daian", foru titulartasuneko errepideen kasuetan udalerrietatik trafikoa nasaitzeko konponbideak eskatuz ailegetan diran eskarien aurrean Aldundiak orain arte izan dauen "behar egiteko sistematika berberagaz" jarraituz, Irene Edesa jeltzaleak adierazo dauenez.

### **ARTZINIEGA-GORDEXOLA TARTEA**

Elorrio ez da izango bide segurtasuneko neurri horreen onurak jasoko dituan Bizkaiko herri bakarra. Izan be, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko foru diputatu jaunak, Bizkaiko Talde Popularrak eskatuta, adierazo dauenez, holango beste neurri batzuk be aplikatu ahal izango dira Gordexola eta Artzeniega arteko BI-2604 errepidean.

Foru diputatuak, Arabako Aldundiagaz eta horren eragina jasoten daben udalerrri biakaz izandako hartu-emonak azaldu ditu, 2005ean Aldundiak Gordexolari laga eutsanetik udalaren titulartasunekoa dan tarte hori egokitu ahal izateko. Bizkaiko erakundeak txosten teknikoa prestatu dau, Udalak lagapen horren ostean instalatu dituan "31 elementu bertikalak" aldatzeko: horreetatik 10 oinezkoentzako igarobide altxatuak; 9 abiadurea moteltzeko gailuak; eta 12, alertako zeharkako bandak dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Horren bitartez, garraio publikoaren eta osasun arlokoaren aldetik jasotako “kexei” erantzun gura izan deutse Foru Aldundiak, badenek eragiten dituen eragozpenak dirala eta, azken urteotan izandako istripu kopuruak “goitik beherako” jatsierea izan dauen arren. Kexa horreei, errepide horretatik sarritan zirkulau behar dauen eta guntzurrunetatik gaixorik dagon pertsona batena gehitu deutse Jesus Isasik.

Pradalesek adierazo dauenez, joan dan urtarrilaren 16an Bizkaiko Foru Aldundiak bilerea euki eban Arabako Aldundiagaz eta Artziniegako eta Gordexolako Udalakaz, eta 3 fasetan antolatutako jarduketea jasoten dauen azterlan teknikoa aurkeztu eban. Lehenengo fasean, foru arautegia beteten ez daben 10 badenetan jardungo litzateke. Bigarrenean galtzadan egin beharreko jarduketak jasoten dira, Gordexolako urigunearen bukaeraren eta Arabagaz dauen mugearen artean, espaloiak eginez edo auto batek beste bat aurreratzeko aukerea emoten daben tarteak kenduz Iraltzagorria auzoan, galtzada murrizteaz gain. Eta hirugarren etapan, aurreko bien eraginkortasuna egiaztatu ostean, abiadura moteltzeko gailu guztien orde zeharkako bandak jarriko litzatekez, Iraltzagorrian dagozanetan izan ezik.

Pradalesek zuzentzen dauen sailak egin dauen txosten teknikoa beste hiru erakundeen esku dago une honetan. Erakunde horreek euren adostasuna adierazoten dabenean lankidetzarako hitzarmena sinatuko da, erakunde bakotxaren betebeharrak definituz. Bizkaiko Foru Aldundia “erantzunaren zain” dago.

#### TURISMOAK “%7,5” EGIN DAU GORA BIZKAIAN

Talde Mistoak eskatuta, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko foru diputatuak 2016. urteko turismoaren datuak zehaztu ditu eta horreen balorazioa egin dau beste agerraldi batean. Horrez gain, Lurraldean urte honetarako dagozan aurreikuspenak be azaldu ditu.

Eustaten datuak kontuan izanda, Bizkaiko turismoak “1.387.571” bisitarien sarrereagaz amaitu eban 2016. urtea, 2015ean baino “%7,5” gehiago, hain zuzen be. Turista kopuruaren hazkundera beste Autonomia Erkidegoetatik etorritako bisitarien eta atzerritik etorritakoen artean ikusi da. Azken horreek 508.473 izan ziran, eta horreetatik askok barrualdeko turismoa aukeratu eben. Turismo moeta horrek “%14,2ko” hazkunde orokorra euki eban. Zabalduak datuak kontuan izanda, 2.693.618 gau igaro ziran – %8,8 gehiago–, hau da, pertsona bakotxak 1,9 eguneko egotaldia egin eban batez-beste.

Ekonomiari jagokonez, Pradalesek azpimarratu dauenez, turismoak BPGren “%5,2” hartzen dau, “1.817 milioi euroko” eragin ekonomikoa sortzen dau, eta lurraldean “40.000 enplegu baino gehiago” eusten laguntzen dau.

Urte honetarako dagozan aurreikuspenei jagokonez, Pradalesek uste dauenez, etorkizunak “itxura ona dauka” baina ezin garala lo gelditu azpimarratu dau. 2017rako erronken artean, diputatuak turismoaren “egonkortasun faltan” zentratu bere hitzaldia, zemenditik martira bitartean, batez be, eta baita Bilbo-Bizkaia jomugearen



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

“digitalizazioan” be, Bizkaia bisitatu eben pertsonen “%72k” Internet bitartez jaso ebalako informazioa.

Pradalesek esan dauenez, oso garrantzitsua da, baita be, turismoa ez daitela Guggenheim Museoa moduko lurraldeko ikonoetara bakarrik ailegau, baita kostaldera edo paisaia berdera be. Horrez gain, eskaria, “turismoa jomugara heldu aurretik” landu behar dala adierazo dau. Holan, Bilbao Bizkaia Action Group izenekoaren barruan egiten dan behar publiko-pribadua azpimarratu dau.

Pradalesek, Turismoaren Foru Behatokitik ataratako beste datu batzuk be konpartidu ditu Batzarretako taldeakaz. Beste batzuen artean, Bizkaira heldu ziran 10 pertsonatik 4k aterpetxeetan, hostel izenekoetan, kanpalekuetan edo apartamentuetan hartu ebela ostatu. Adierazo dauenez, bisitari horreek “ez dira estadistika ofizialetan agertzen”. Turista bakotzak “476 euro gastau ebazan batez-beste (681, atzerritarrak eta 332, estadukoak)”. Bisitariaren balorazino orokorra “8,62 puntukoa” izan zan, 10etik. Bisitariak harrিতuta geratu ziran, modu positiboan, “gastronomia, pertsonak eta paisaia” zirala eta.

Batzarretako taldeek “modu positiboan” balorau ditue lortutako zifrak, baina etorkizunerako iradokizun batzuk be planteau ditue. Arturo Aldecoak (Talde Mistoa) esfortzu handiagoa eskatu dau jomugearen digitalizazioan eta familiei eskinitako turismoan. Jesus Isasik (PP) merkataritzaren sektorean asteburuetan ezarri beharreko neurriak planteau ditu, turistek dendak zabalik aurkitu daiezan, eta baita turismoa bultzatzeko egon daitekezan aukerak baliatzea be, Kopako Finala, beste batzuen artean. Neskutz Rodríguezek (Podemos) barrualdeko turismoa, El Karpin eta senderismoa egiteko ibilpideak sustetako ekintzak eskatu ditu, eta baita Gaztelugatxeko San Joanera egiten diran bisita masiboak dirala eta ingurumenaren arloan sortu daitekezan eraginak murrizteko neurriak be. Joseba Gezuraga (EH Bildu) pozik agertu da barrualdeko turismoa, bere eskari historikoetako bat, batez bestekoa baino gehiago hazi dalako, baina turismo “berdean” “gabeziak” dagozala azaldu dau, inguruko lurraldeakaz alderatuta.

Foru Gobernua eusten daben talde biek, euren aldetik, pozik agertu dira datuak ezagutu eta gero. Ignacio Jerónimo sozialistak, turismoak 40.000 pertsona baino gehiagori beharra emoten deusela azpimarratu dau, eta “zigortutako” eskualdeak sustetako orduan esfortzu handiagoak egin behar dirala esan dau, Ezkerraldean edo Meatzaldean, besteak beste. Sektoreak sortzen dituan lanpostuak azpimarratzeaz gain, Mikel Bagan jeltzaleak turismoak Bizkaiko BPGaren %5,2a betetea eta urtean 1.800 milioi euroko aberastasuna sortzea oso garrantzitsua dala adierazo dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

14/02/2017

## **Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación a estudiar la implementación de "medidas de calmado" de tráfico en Elorrio**

La comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado, por unanimidad, hoy una enmienda transaccional firmada por los grupos junteros Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Podemos Bizkaia y Popular Vizcaíno, para que la Diputación foral estudie y, en caso de que fuera necesario, implemente “medidas de calmado del tráfico” en la BI-3331, en Elorrio, a la altura del acceso por Urkizuaran, en colaboración con el ayuntamiento.

La idea partía de una proposición no de norma de Podemos Bizkaia, formación que había demandado inicialmente la instalación de “limitadores de velocidad” con el propósito de poner solución al problema de seguridad vial generado por el exceso de velocidad en una zona con limitación de velocidad a 60 km/h. La iniciativa original había sido enmendada por el PP para perseguir que la mejora no incluyese la instalación de badenes por los “problemas” que generan a los conductores.

Finalmente, el texto aprobado va en línea a otra enmienda registrada por PNV y PSE-EE en la que se reclamaba a la Diputación “estudiar” la problemática en colaboración con el ayuntamiento, siguiendo la “misma sistemática de trabajo” que ha mantenido la Diputación, según la jeltzale Irene Edesa, ante solicitudes de calmado de tráfico que llegan de los municipios en carreteras de titularidad foral.

### **TRAMO ARTZINIEGA-GORDEXOLA**

Elorrio no será la única localidad de Bizkaia que podrá beneficiarse de estas medidas de seguridad vial, ya que, según ha informado el diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, a petición del grupo Popular Vizcaíno, otras mejoras de este tipo podrían aplicarse también en la carretera BI-2604 en su tramo Artziniega-Gordexola.

El diputado foral ha explicado los contactos mantenidos con la Diputación alavesa y los dos municipios afectados para reacondicionar este tramo de titularidad municipal desde que la Diputación lo cedió en el año 2005 a Gordexola. La Institución vizcaína ha elaborado un informe técnico para modificar los “31 elementos verticales” instalados por el municipio después de esta cesión: 10 de ellos pasos peatonales elevados; 9 reductores de velocidad; y 12 bandas transversales de alerta.

La institución foral quiere atender así las “quejas” recibidas, especialmente de transporte público y sanitario, por las molestias que ocasionan los badenes, pese a que hayan reducido “drásticamente” el número de accidentes en los últimos años. Entre ellas, el popular Jesus Isasi ha sumado la reclamación de un enfermo renal que habitualmente circula por esta vía.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Según ha señalado Pradales, la Diputación foral de Bizkaia mantuvo una reunión el pasado 16 de enero con la Diputación alavesa y los Ayuntamientos de Artziniega y Gordexola, en la que se les presentó un estudio técnico que incluye una actuación en 3 fases. En la primera, se actuaría sobre 10 badenes que no cumplen la normativa foral. En una segunda, se incluyen actuaciones de calzada en el tramo situado entre el final del núcleo urbano de Gordexola y el límite con Araba, con ejecución de aceras o la eliminación de tramos con posibilidad de adelantamiento en el barrio de Iraltzagorria, además de una reducción de la calzada. Y en una tercera etapa, comprobada la eficacia de las anteriores, se sustituirían todos los reductores de velocidad por bandas transversales de alerta a excepción de los situados en Iraltzagorria.

El informe técnico elaborado por el departamento que dirige Pradales está ahora en manos de las otras tres instituciones que tienen que dar su conformidad, para posteriormente firmar un convenio de colaboración donde se definan las obligaciones de cada uno. La Diputación vizcaína está "a la espera de respuesta".

#### CRECE EL TURISMO UN "7,5%" EN BIZKAIA

A instancias del grupo Mixto, el diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha desgranado en otra comparecencia los principales datos turísticos del año 2016 y ha realizado una valoración de los mismos, así como una previsión de lo que le espera al Territorio este mismo año.

El turismo en Bizkaia finalizó, según datos del Eustat, con un total de "1.387.571" entradas de visitantes, un "7,5%" más respecto a 2015. El incremento de turistas se ha producido tanto entre los visitantes venidos del resto de Comunidades Autónomas como entre los extranjeros. Estos últimos ascendieron a 508.473 y muchos se decantaron por el turismo de interior que creció, en términos globales, un "14,2%". Según los datos difundidos, se produjeron 2.693.618 pernoctaciones –un 8,8% más–, lo que da una media 1,9 días de estancia.

En términos económicos, Pradales ha destacado que el turismo representa el "5,2%" del PIB, genera un impacto económico de "1.817 millones de euros", y contribuye a mantener "más de 40.000 empleos" en el territorio.

Respecto a las previsiones para este año, Pradales cree que el horizonte es "prometedor", aunque ha advertido de que "no debemos dormirnos en los laureles". Entre los retos para 2017, el diputado ha centrado su discurso en la "desestabilización" del turismo, especialmente entre los meses de noviembre y marzo, y en la "digitalización" del destino Bilbao-Bizkaia, ya que el "72%" de las personas que visitaron Bizkaia se informó a través de internet.

Pradales ha insistido también en la necesidad de trabajar para que el turismo no llegue únicamente a los iconos del territorio como el museo Guggenheim, sino también a la costa o al paisaje verde, así como en la idea de que se trabaje la demanda "antes de que el turista llegue al destino". En este sentido, ha destacado la labor público-privada que se realiza en el seno del Bilbao Bizkaia Action Group.

Extraídos del Observatorio foral de Turismo, Pradales ha compartido con los grupos junteros otros datos, como el que 4 de cada 10 personas que llegaron a Bizkaia se hospedaron en albergues, hostels, campings o apartamentos, visitantes que, ha advertido, "no aparecen en las estadísticas oficiales". El turista gastó de media "476 euros (681, el extranjero y 332 el estatal)".



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

La valoración general del visitante alcanzó los “8,62 puntos”, sobre un total de 10, que se vio gratamente sorprendido por “la gastronomía, las personas y el paisaje”.

Los grupos junteros han valorado “positivamente” las cifras obtenidas, si bien han planteado algunas sugerencias para el futuro. Arturo Aldecoa (Mixto) ha pedido mayor esfuerzo en la digitalización del destino y en el turismo familiar. Jesus Isasi (PP) ha planteado medidas en el sector del comercio para los fines de semana, ya que que los turistas encuentren tiendas abiertas, y aprovechar oportunidades promocionales como la Final de Copa. Neskutz Rodríguez (Podemos) ha demandado acciones para fomentar el turismo del interior, el Karpin y las rutas de senderismo, al igual que medidas para reducir impactos medioambientales por visitas masivas a San Juan de Gaztelugatxe. Joseba Gezuraga (EH Bildu) se ha congratulado de que el turismo de interior, una de sus demandas históricas, crezca por encima de la media, aunque ha significado un “déficit” en el turismo “verde” en relación a territorios limítrofes.

Por su parte, las dos formaciones que apoyan al Gobierno foral se han congratulado con los datos. El socialista Ignacio Jerónimo ha destacado que el turismo dé empleo a más de 40.000 personas y ha pedido mayores esfuerzos en la promoción de comarcas “castigadas” como la Margen Izquierda o la Zona Minera. Además de incidir en los puestos de trabajo que genera el sector, el jeltzale Mikel Bagan ha subrayado que el turismo representa ya el 5,2% del PIB vizcaíno y genera una riqueza de 1.800 millones de euros al año.